Babes Zibileko Sailburuordetza
Viceconsejería de Protección Civil

TRAFIKOA - TRÁFICO

# 2025eko Memoria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



# TRAFIKO ZUZENDARITZAREN URTEKO MEMORIA

# MEMORIA ANUAL DE LA DIRECCIÓN DE TRÁFICO

## 2025



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

VITORIA-GASTEIZ, 2026

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
**https://katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua**

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse
en el catálogo de la Biblioteca general del Gobierno Vasco:
**https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua**

**Argitalpena:** **1.a, 2026ko otsaila**
Edición: 1ª, febrero 2026

**Ale kopurua:** **70 ale**
Tirada: 70 ejemplares

**©:** **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa**
**Segurtasun saila**
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Seguridad

**Internet:** **www.euskadi.eus**

**Argitaratzailea:** **Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Edita: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz

**Inprimatzea:** **Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua**
Impresión: Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

**Lege-gordailua:** **LG G 102-2026**
Depósito Legal:

# AURKIBIDEA | ÍNDICE


1. MUGIKORTASUNAREN BILAKAERA
   COMPORTAMIENTO DE LA MOVILIDAD ........ 07

2. 2025EKO EZBEHARREN BALANTZEA
   BALANCE DE LA SINIESTRALIDAD EN 2025 ........ 10

3. 2025EKO EKINTZAK
   ACCIONES DE 2025 ........ 19

4. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK
   PROCEDIMIENTOS ADMINISTRATIVOS ........ 45





# MUGIKORTASUNA-REN BILAKAERA

Mugikortasunari dagokionez, 2025ean orokorrean gainditu ziren 2024ko kopuruak. Edonola ere, EAEko hiriburuetarako sarbideetan erregistratutako trafikoaren joan-etorrien bilakaera bestelakoa izan dela azpimarratu behar da, ibilbide luzekoen eta mugaz gaindikoen aldean. Hiriburuetara sartzeko joan-etorriak 2025ean ia % 4 igo ziren, 2024koekin alderatuta. Horien hazkundearen erritmoa ibilbide luzeko mugikortasunarena eta nazioarteko trafikoarena baino pixka bat handiagoa izan zen. Bilakaera hori, batez ere, ia 2025 osoan erregaien prezioa egonkortu izanaren ondorioa izan daiteke; izan ere, faktore horrexek eragina izan zezakeen aurreko urteetan (2023an eta 2024an) garraio publikoaren erabileraren goranzko joeraren geldialdian.

Ibilbide luzeko joan-etorriak eta mugaz gaindikoak direla eta, 2025ean, batez beste, % 3 eta % 2 hazi ziren, hurrenez hurren, 2024koekin alderatuta. Hazkunde apalak izan ziren, azken urteetan izandako % 6 ingurukoetatik urrunduta. Antza denez, muga-zerga handiak ezarri izanaren ondorioz Europako ekonomian sortutako ziurgabetasunak eragina eduki ahal izan zuen ibilgailu astunen pandemiaren osteko joan-etorrien urteko batez besteko hazkunde handiaren motelaldian. 2026an egiaztatu ahal izango da joera-aldaketa horrek luzerako joko duen ala 2025era mugatutako behin-behineko egoera izan den.

# COMPORTAMIENTO DE LA MOVILIDAD

En términos de movilidad y con carácter general, durante el 2025, se han superado las cifras registradas durante el 2024. Cabe subrayar, sin embargo, un comportamiento diferenciado en los flujos de tráfico registrados en los accesos a las capitales vascas frente a los flujos de largo recorrido y el flujo transfronterizo. En los flujos de acceso a las capitales, durante el 2025, se ha registrado un incremento casi el 4% con respecto a los registrados en el 2024. Se trata de un ritmo de crecimiento ligeramente superior al experimentado en la movilidad de largo recorrido y en el tráfico internacional. Esta circunstancia puede deberse principalmente a una cierta estabilización en el precio de los carburantes que se ha mantenido durante prácticamente todo el año 2025, factor que puede haber influido en un estancamiento de la tendencia ascendente en el uso del transporte público registrada en los años anteriores (2023 y 2024).

En lo que respecta a los tránsitos de largo recorrido y al trasfronterizo durante el 2025, se han registrado unos incrementos medios del 3% y del 2%, respectivamente, en comparación con los registrados en el 2024. Se trata de crecimientos moderados que se alejan de los registrados en los últimos años y que rondaban el 6%. La incertidumbre generada en la economía europea con la implantación de elevados aranceles parece haber contribuido en desacelerar el elevado incremento medio anual de los desplazamientos de los vehículos pesados al que nos habíamos acostumbrado tras la pandemia. Durante el 2026 se podrá comprobar si se trata de un cambio de tendencia de larga duración o si se ha producido una situación provisional durante el 2025.

## EUSKAL HIRIBURUETAKO SARBIDE-SAREKO TRAFIKOAREN ALDERAKETA 2024-25

## COMPARATIVA DEL TRÁFICO EN LA RED DE ACCESOS A LAS CAPITALES EN EUSKADI 2024-25




## EUSKADIKO IBILBIDE LUZEKO TRAFIKOAREN ALDERAKETA 2024-25

## COMPARATIVA DEL TRÁFICO DE LARGO RECORRIDO EN EUSKADI 2024-25



**TRAFIKOAREN BILAKAERA BIRIATOUKO MUGAN 2024-25**

**EVOLUCIÓN DEL TRÁFICO EN LA MUGA DE BIRIATOU 2024-25**








# 2

# 2025EKO EZBEHARREN BALANTZEA

# BALANCE DE LA SINIESTRALIDAD EN 2025

## 2.1 ERTZAINTZAK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK

2025ean, Ertzaintzak 7.914 trafiko istripu erregistratu zituen EAEko errepideetan, horietatik 2.508 biktimadun istripuak izan ziren eta 5.406, aldiz, biktimarik gabekoak. Guztira, 14.252 ibilgailu eta 15.811 bizilagun izan ziren istripuotan eragindakoak. Pertsona guzti horietatik 35 hilda suertatu ziren eta zaurituei dagokienez, 340 larriak eta 3.168 arinak izan ziren.

2025eko behin-behineko zifrak 2024an izan zirenekin alderatuta, 2025ean istripu-kopurua % 2,5 hazi zen aurreko urtearekin alderatuta. 2024arekin alderatuta, hildakoen kopurua % 9,4 igo zen eta larri zauritutakoena, aldiz, % 4.

Jarraian erakutsitako taulan 2025eko behin-behineko datuak eta aurreko urteetako datu bateratuak agertzen dira (iturria: Trafiko Istripuei buruzko Urtekari Estatistikoa).

## 2.1 ACCIDENTES REGISTRADOS POR LA ERTZAINTZA

Durante 2025 la Ertzaintza ha registrado en las carreteras vascas 7.914 accidentes de tráfico, de los que 2.508 son accidentes con víctimas y 5.406, accidentes sin víctimas. En todos ellos se vieron implicados un total de 14.252 vehículos y 15.811 personas, de las que 35 fallecieron, 340 resultaron heridas graves y 3.168 heridas leves.

Comparando las cifras provisionales del año 2025 con aquellas que lo fueron en 2024, en 2025 el número de accidentes ha experimentado un aumento del 2,5% respecto al pasado año. El número de personas fallecidas ha aumentado un 9,4%, y el de personas heridas graves ha aumentado un 4%, respecto a 2024.

La tabla que se muestra a continuación contiene los datos provisionales del 2025 y los consolidados de los años anteriores (fuente: Anuario Estadístico de Accidentes de Tráfico).

## TRAFIKO ISTRIPUAK 2025EAN | ACCIDENTES DE TRÁFICO 2025

| | 2022 | 2023 | 2024 | 2025* |
|---|---|---|---|---|
| ISTRIPUAK GUZTIRA<br>TOTAL DE ACCIDENTES | 7.642 | 7.942 | 7.724 | 7.914 |
| Biktimak eragin dituzten istripuak<br>Accidentes con víctimas | 2.391 | 2.591 | 2.496 | 2.508 |
| Biktimarik gabeko istripuak<br>Accidentes sin víctimas | 5.251 | 5.351 | 5.228 | 5.406 |
| INPLIKATUTAKO IBILGAILUAK<br>VEHÍCULOS IMPLICADOS | 13.910 | 14.096 | 13.670 | 14.252 |
| INPLIKATUTAKO PERTSONAK**<br>PERSONAS IMPLICADAS** | 14.640 | 15.424 | 15.038 | 15.811 |
| Hildakoak / Fallecidas | 34 | 38 | 32 | 35 |
| Larri zaurituak / Heridas graves | 291 | 320 | 327 | 340 |
| Zauritu arinak / Heridas leves | 2.968 | 3.301 | 3.138 | 3.168 |

*Behin behineko datuak 2026/02/11
**Zauritu gabekoak ere barruan daude

*Datos provisionales a 11/02/2026
**Se incluyen personas ilesas

### BIKTIMADUN ISTRIPUEN BILAKAERA EUSKADIKO ERREPIDEETAN

Biktimadun istripuen sailak estatistikoki fidagarriena da bideko ezbehar-tasari lotutako sail guztien artean. Haren arabera, adierazleak beheranzko joera erakutsi du 2003tik. Hala ere, azken 10 urteotan istripu-tasak egonkortu egin direla ikus daiteke, zehatz-mehatz, urteko 2.400 istripu gutxi gorabehera.

### EVOLUCIÓN DE LOS ACCIDENTES CON VÍCTIMAS EN LAS CARRETERAS DE EUSKADI

La serie de los accidentes con víctimas, que es el dato estadísticamente más fiable entre todas las series relacionadas con la siniestralidad vial, muestra una tendencia descendente desde 2003. Sin embargo, en los últimos 10 años se observa una estabilización de las cifras de accidentalidad, entorno a los 2.400 accidentes con víctimas por año.

## EUSKADIKO ERREPIDEETAN BIKTIMAK ERAGIN DITUZTEN ISTRIPUEN BILAKAERA

## EVOLUCIÓN DE LOS ACCIDENTES CON VÍCTIMAS EN LAS CARRETERAS DE EUSKADI




*Behin behineko datuak 2026/02/11 | *Datos provisionales a 11/02/2026

## EUSKADIKO TRAFIKO ISTRIPUAK (ERTZAINTZA)

Euskal errepideetan gertatutako trafiko-istripuen ezaugarriak urtero aldaketa txikiekin errepikatzen ibili dira. 2025ekoei dagokienez, honako hauek nabarmendu daitezke:

Ertzaintzak erregistratutako datuen arabera, istripua izandako hamar bizilagunetatik zazpi gizonak ziren eta hiru emakumeak. Hildakoen artean, gizonen ehunekoa % 89 da.

45 eta 54 urte artean ditu trafiko-istripua izandakoen % 21 inguruk; 25 eta 34 urte artean haien % 18ak; 35 eta 44 arteko adina % 17ak; 15 eta 24 urte artean % 15ak; 55 eta 64 artean % 15ak; 65 urte edo gehiago % 10ak; eta 15 urte baino gutxiago gainerako % 4ak. 2025ean errepideko istripua eduki zutenen adinaren araberako egitura hori ez zen ia aldatu aurreko urteetakoaren aldean.

Horrela, istripua izandako guztien % 10 baino ez ziren 64 urtetik gorakoak. Ertzaintzak erregistratutako zauritu larrien artean, berriz, 64 urtetik gorakoen ehunekoa % 27ra igo zen. Hildakoei dagokienez, 18 urtetik beherakoak % 11 izan ziren, 18 eta 65 urte bitartekoak % 80a eta 65 urtetik gorakoak gainerako % 9a.

Istripua izan zutenen % 76a gidariak ziren, % 23a bidaiariak eta % 1a oinezkoak.

Trafiko-istripua izandako ibilgailuen % 63a turismoak izan ziren, % 7a animaliak[1], % 4a ziklomotorrak edo motozikletak, % 3a bizikletak eta gainerakoei dagokienez, pertsonak edo salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak.

Biktimak eragin zituzten istripu-motei dagokienez, % 46a abian zeuden ibilgailuek talka egitearen ondorioz gertatu ziren, % 19a segurtasun-hesiaren edo bideko beste elementu baten aurka talka egitearen ondorioz, % 14a erorikoek eragindakoak, % 5a iraulita, % 5a galtzadatik irtenda edo amildegiratuta eta % 4a ibilgailuek harrapatutakoak. Bestelako istripuak osatzen dituztenak gainerako % 7aren barruan, % 1 baino ez ziren harrapatutako animaliak.

*1. Animaliak “beste ibilgailu batzuk” multzoan sartzen dira, baldin eta trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legediaren menpeko lur-eremu batean edo zirkulazio publikora irekitako bide batean jatorria duen edo sortu den istripu batean inplikatuta badaude.*

## ACCIDENTES DE TRÁFICO DE EUSKADI (ERTZAINTZA)

En cuanto a las características de los accidentes de tráfico producidos en las carreteras vascas en 2025, que se repiten con ligeras variaciones todos los años, podemos destacar las siguientes:

Según datos registrados por la Ertzaintza, siete de cada diez personas accidentadas son hombres, y tres son mujeres. En las víctimas mortales, el porcentaje de hombres es del 89%.

En torno al 21% de las personas implicadas en accidentes de tráfico tiene entre 45 y 54 años; el 18% entre 25 y 34; el 17% entre 35 y 44; el 15% entre 15 y 24; el 15% entre 55 y 64; el 10% 65 o más años y el 4% restante tiene menos de 15 años. Esta estructura por edad de las personas implicadas en accidentes en carretera en 2025 apenas varía con respecto a la registrada en los años anteriores.

Así, solo un 10% del total de personas accidentadas son mayores de 64 años. En cambio, entre las personas heridas graves registradas por la Ertzaintza, el porcentaje de mayores de 64 años sube hasta el 27%. En cuanto a las personas fallecidas, el 11% han sido menores de 18 años, el 80% tiene entre 18 y 65 años y el 9% restante, más de 65 años.

El 76% de las personas accidentadas son conductoras, el 23% ocupantes y el 1% viandantes.

El 63% de los vehículos implicados en accidentes de tráfico son turismos; el 7%, animales[1]; el 4%, ciclomotores o motocicletas; el 3%, bicicletas y el resto, vehículos que transportan personas o mercancías.

En relación a los tipos de accidentes con víctimas, el 46% ha sido consecuencia de una colisión de vehículos en marcha; el 19%, por choque contra barrera de seguridad u otro elemento de la vía; el 14%, debido a caídas; el 5%, por vuelcos; el 5%, por salidas de la calzada o despeñamientos y el 4%, por atropellos a personas. Dentro del 7% restante, que completan otro tipo de accidentes, solo un 1% lo constituyen los atropellos a animales.

*1. Los animales son considerados como “otros vehículos”, cuando se han visto implicados en un accidente producido o con origen en una vía abierta a la circulación pública o terreno objeto de legislación sobre tráfico, circulación de vehículos de motor y seguridad vial.*

Bidearen egoerari dagokionez, kasuen % 64an lehor eta garbi zegoen eta gainerako % 36an eragozpenen bat zegoen zoruan: ura, elurra, izotza, olioa, etab.

Biktimak eragin zituzten istripuen % 73a lanegunetan gertatu ziren eta asteko egunen arteko banaketari dagokionez, ez da aldaketa handirik behatu, tarte hauen artean: istripuen % 13a igandeetan eta % 16a, berriz, astelehenetan.

Biktimadun istripu gehien izandako hilak azaroa (% 11), ekaina eta uztaila (% 10) izan ziren eta gutxien izandakoak, aldiz, martxoa (% 6), urtarrila eta otsaila (% 7).

Istripua izandako gidariek, oro har, uhala edo kaskoa erabiltzen zuten. Istripua izandakoei erreparatuta, bai autoz bidaiatutako gidari eta bidaideei dagokienez, bai motor-gidarien artean (ziklomotorrak barne), % 1 baino gutxiago ziren segurtasun-uhalik edo kaskorik ez zeramatenak, hurrenez hurren.

En cuanto al estado de la vía, en el 64% de los casos estaba seca y limpia y en el 36% restante existía algún condicionante en la superficie: agua, nieve, hielo, aceite, etc.

El 73% de los accidentes con víctimas tienen lugar en días laborables, y no se observan grandes variaciones en su distribución entre los días de la semana, desde un 13% de accidentes los domingos hasta un 16% los lunes.

Los meses en los que más accidentes con víctimas se registraron fueron noviembre (11%) y junio y julio (10%), y en los que menos, marzo (6%), enero y febrero (7%).

El uso del cinturón o casco por parte de las personas conductoras accidentadas es generalizado. Tanto en el caso de los conductores y ocupantes de turismo, como en el de las personas motoristas (incluidos ciclomotores), el porcentaje de personas accidentadas que se conoce no llevaban cinturón de seguridad o casco, respectivamente, es menor que 1%.



## 2.2 ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOEK ERREGISTRATUTAKO ISTRIPUAK

2025ean, hildakoak eragin zituzten 40 trafiko istripu egon ziren Euskadiko kale eta errepideetan (33 Ertzaintzak erregistratuta eta beste 7 Udaltzaingoen bitartez). Horien ondorioz, 42 lagun hil ziren berehalakoan edo ondorengo 24 orduko epea igaro baino lehen. Guztira, 2024arekin alderatuta, hildakoak eragin zituzten 5 istripu eta 5 hildako gehiago izan ziren.

Lurraldearen arabera, hilkortasuna aurreko urtearen aldean % 89 hazi zen Araban eta % 11 jaitsi zen Bizkaian eta Gipuzkoan. Hala, 2025ean trafiko-istripuan hil ziren: 17 bizilagun Araban (2024an baino 8 gehiago); 8 Bizkaian (2024an baino 1 gutxiago); eta 17 Gipuzkoan (2024an baino 2 gutxiago).

Larri zauritutakoak 466 bizilagun izan ziren. Kopuru hori % 4,3 txikiagoa izan zen 2024ko data berean behin-behinekoz jasotako datua baino.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, Euskadiko trafiko-istripuetan hildakoen bilakaerari erreparatzen bada, 2003tik beheranzko joera etengabea izan duela ikusiko da, 2014ko gutxienekora iritsi arte (29 hildako). Ordutik, hildakoen kopurua honako tarte honen barruan geratu da: 2015ean, 53 izan ziren; eta 2024an, aldiz, 37.

## 2.2 ACCIDENTES REGISTRADOS POR LA ERTZAINTZA Y POLICÍAS LOCALES

En 2025 se han producido en las calles y carreteras de Euskadi 40 accidentes de tráfico mortales (33 registrados por la Ertzaintza y 7 por las Policías Locales), con el resultado de 42 personas fallecidas en el acto o antes de transcurridas las primeras 24 horas. En total, ha habido 5 accidentes mortales y 5 víctimas mortales más que en 2024.

Por territorios, respecto al pasado año, la mortalidad sube un 89% en Álava, se mantiene en Bizkaia, mientras que cae un 11% en Gipuzkoa. Así, en 2025 han perdido la vida en accidente de tráfico: 17 personas en Álava (8 más que en 2024), 8 personas en Bizkaia (1 menos que en 2024) y 17 personas en Gipuzkoa (2 menos que en 2024).

En cuanto al número de personas que han resultado heridas graves (466 personas), se ha experimentado un descenso del 4,3% respecto a los datos provisionales a la misma fecha de 2024.

Si observamos la evolución de las personas fallecidas en accidentes de tráfico en Euskadi, como muestra el siguiente gráfico, vemos cómo desde 2003 ha seguido una línea descendente hasta llegar al mínimo registrado en 2014, con 29 personas fallecidas. Desde entonces, el número de personas fallecidas ha variado de 53 en 2015, a 37 en 2024.

## EUSKADIKO TRAFIKO-ISTRIPUETAN HILDAKOEN KOPURUAK IZANDAKO BILAKAERA

(ERTZAINTZA+UDALTZAINGOAK)

## EVOLUCIÓN PERSONAS FALLECIDAS EN ACCIDENTES DE TRÁFICO EN EUSKADI

(ERTZAINTZA+ POLICIAS LOCALES)




*Behin behineko datuak 2026/02/11 | *Datos provisionales a 11/02/2026

## EUSKADIKO TRAFIKO-ISTRIPUETAN HILDAKOEN KOPURUAK IZANDAKO BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

(ERTZAINTZA+UDALTZAINGOAK)

## EVOLUCIÓN PERSONAS FALLECIDAS EN ACCIDENTES DE TRAFICO EUSKADI TTHH

(ERTZAINTZA+ POLICIAS LOCALES)




*Behin behineko datuak 2026/02/11 | *Datos provisionales a 11/02/2026

## ISTRIPUEN EZAUGARRIAK

Hildakoen % 74a gidariak ziren (% 42a motozikleta eta bizikleten gidariak ziren eta % 58a autoenak edo beste ibilgailu batzuenak), % 14a bi gurpil baino gehiagoko ibilgailuetan zihoazen eta gainerako % 12a, berriz, oinezkoak ziren.

Hildakoen % 45a bizilagun zaurgarrien taldekoak ziren, guztira, 19 bizilagun. Horietatik 11 motorzaleak ziren, 5 oinezkoak eta 3 txirrindulariak. 2024rekin alderatuta eta zenbaki absolutuetan, kolektibo zaurgarriko 2 pertsona gutxiago hil ziren.

Hildako guztien % 79a gizonezkoak ziren eta gainerako % 21a, aldiz, emakumezkoak. Banaketa horretan ez da aldaketa handirik izan aurreko urtekoaren aldean; izan ere, emakumeen ehunekoa 3 puntu gutxitu da 2024koarekin alderatuta.

## HILDAKOEN EHUNEKOAK ADINAREN ARABERA

Hildako gidarietatik 45 eta 64 urte bitarteko adina zuten % 52ak; 25 eta 44 urte bitartekoa % 23ak; 25 urte baino gutxiagokoa % 19ak; eta 64 urte baino gehiagokoa gainerako % 6ak.

Ibilgailuetan hildakoen artean, 14 eta 24 urte bitartekoak ziren % 67a; 45 eta 64 urte bitartekoak % 16,5a; eta 14 urte baino gutxiago zituen gainerako % 16,5ak.

Hildako oinezkoei dagokienez, guztiek zituzten 60 urte baino gehiago eta 64 urtetik gorakoak ziren hildako oinezkoen % 80a.

## TIPOLOGÍA DE LA ACCIDENTALIDAD

El 74% de las personas fallecidas son conductoras (el 42% son conductoras de motocicleta y bicicleta y el 58% de turismos u otros vehículos), el 14% son ocupantes de vehículos de más de dos ruedas o más, y el 12% restante son viandantes.

El 45% de las personas fallecidas pertenece al colectivo de vulnerables; de las 19 personas que forman de este colectivo, 11 eran motoristas, 5 eran viandantes y 3 eran ciclistas. Respecto a 2024, y en números absolutos, han fallecido 2 personas menos pertenecientes al colectivo vulnerable.

De todas las personas fallecidas, el 79% son varones y el 21% restante, mujeres. La distribución no ha variado en exceso respecto al año anterior, el porcentaje de mujeres se ha reducido en 3 puntos porcentuales con respecto a 2024.

## PORCENTAJES POR EDAD DE LAS PERSONAS FALLECIDAS

De las personas conductoras fallecidas, el 52% tiene entre 45 y 64 años; el 23% entre 25 y 44 años; el 19% tiene menos de 25 años y el 6% restante tiene más de 64 años.

De las personas ocupantes fallecidas, el 67% entre 14 y 24 años; el 16,5% entre 45 y 64 años; y el otro 16,5% tiene menos de 14 años.

Entre las personas viandantes, todos los fallecidos tenían más de 60 años, representando el colectivo mayor de 64 años el 80% de viandantes fallecidos.



**HILDAKOAK**
(KOLEKTIBO KALTEBERA 2025)

**PERSONAS FALLECIDAS**
(COLECTIVO VULNERABLE EN 2025)




*Behin behineko datuak 2026/02/11 | *Datos provisionales a 11/02/2026

## HILDAKOAK

Trafiko-istripuetan hildako guztien % 45a kolektibo zaurgarri baten kideak ziren. Horietatik % 58a motorzaleak ziren, % 16a txirrindulariak eta gainerako % 26a oinezkoak. Hildako guztien arteko banaketa ondoko grafikoan ikus daiteke:

## ISTRIPU HILGARRIEN ARRAZOIAK ETA TIPOLOGIA

Hildakoen % 38k Arreta galduta edo arretarik gabe gidatzeak eragin zezakeen istripuetan hil ziren, eta % 38k Abiadura desegokia izan zuten.

Istripu hilgarrien % 40k Arreta galduta edo arretarik gabe gidatzeak izan zuen eragina, eta % 35ek Abiadura desegokiak.

Istripu motari dagokionez, esan dezakegu hildakoen % 21ek Aurrez aurreko talka motako istripuetan egin zutela.

## PERSONAS FALLECIDAS

El 45% del total de personas fallecidas en accidente de tráfico pertenecía a un colectivo vulnerable. El 58% de ellas eran motoristas, el 16% ciclistas y el 26% restante viandantes. Sobre el total de personas fallecidas, la distribución es la que se muestra en el gráfico:

## CAUSAS Y TIPOLOGÍA DE LOS ACCIDENTES MORTALES

El 38% de las personas fallecidas lo hicieron en accidentes que tuvieron como posible influencia la Conducción distraída o desatenta y el 38% tuvieron la Velocidad inadecuada.

El 40% de los accidentes mortales tuvo como posible influencia la Conducción distraída o desatenta, mientras que el 35% tuvo como influencia la Velocidad inadecuada.

Respecto al tipo de accidente podemos afirmar que el 21% de las personas fallecidas lo hicieron en accidentes del tipo Colisión frontal.

## ISTRIPU HILGARRIEN BALIZKO ARRAZOIAK 2025EAN

## POSIBLES INFLUENCIAS DE LOS ACCIDENTES MORTALES EN 2025




## HILDAKOAK, ISTRIPU MOTAREN ARABERA 2025EAN

## FALLECIDOS SEGÚN TIPO DE ACCIDENTE 2025




*Behin behineko datuak 2026/02/11 / *Datos provisionales a 11/02/2026




# 3

# 2025EKO EKINTZAK

## 3.1 BIDEKO HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

### TRAFIKO-ISTRIPUEN PREBENTZIOAREN ARLOKO SENTSIBILIZAZIO-EKINTZAK, UNIBERTSITATEAZ KANPOKO HEZKUNTZA-SISTEMAKO IKASLEENTZAT, MUGIKORTASUN SEGURU ETA JASANGARRIAREN ERRONKA BERRIEN BARRUAN

**“Gerta dakizuke” programa**

Programa hau Euskadiko ikastetxeetako 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. AESLEMEk (Bizkarrezurmuineko Lesioa Aztertzeko Elkartea) garatu du horrelako lesioei eta horien prebentzioari buruzko programa hori; askotan horrelako lesioak trafiko-istripuek eragiten baitituzte.

- ➜184 saio
- ➜6.515 parte-hartzaile

# ACCIONES DE 2025

## 3.1 EDUCACIÓN Y FORMACIÓN VIAL

### ACCIONES DE SENSIBILIZACIÓN EN MATERIA DE PREVENCIÓN DE ACCIDENTES DE TRÁFICO DIRIGIDAS AL ALUMNADO DEL SISTEMA EDUCATIVO NO UNIVERSITARIO ENMARCADAS EN LOS NUEVOS RETOS DE MOVILIDAD SEGURA Y SOSTENIBLE

**Programa “Te puede pasar”**

Este programa está destinado a jóvenes de 14 a 18 años de los centros educativos de Euskadi. Se trata de un programa desarrollado por AESLEME (Asociación para el Estudio de la Lesión Medular Espinal), en el que se tratan las características de este tipo de lesión, muchas veces causadas por un accidente de tráfico, y su prevención.

- ➜184 sesiones
- ➜6.515 participantes

### “Don’t be dummy! Zuk ez duzu ordezkorik” programa

Euskadiko unibertsitatetik kanpoko ikastetxeetan ikasten duten eta oraindik gidariak ez diren 16 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Dummy abatar birtualak aurkezten du programa hori eta horretan errepide-eremuko profesionalen (larrialdietako teknikariak, suhiltzaileak, ertzainak, udaltzainak...), trafiko-istripuen biktimen zein horien senideen zuzeneko lekukotzak eta ikus-entzunezko proiekzioak agertzen dira.

- **33 saio**
- **6.699 parte-hartzaile**

### Programa “Don’t be dummy! Para ti no hay repuesto”

Está dirigido a jóvenes preconductores de entre 16-18 años de los centros educativos no universitarios de Euskadi. Dummy, personaje avatar 3D interactivo, es el presentador e hilo conductor del evento. Durante el evento experimenta una serie de situaciones y emociones para llegar a una conclusión: “para ti no hay repuesto(s)”. La prevención se presenta como el factor ineludible que evita los finales dramáticos.

- **33 sesiones**
- **6.699 participantes**

### “Norabide aldaketa” antzerki-forum programa

Antzerki pedagogiko parte-hartzailea da. Berariaz bide-heziketa lantzeko diseinatuta dago eta 14 eta 16 urte bitarteko gazteak bideko arrisku-jokabideez kontzientziatzeko eta horiek prebenitzeko helburua dauka.

- **19 saio**
- **474 parte-hartzaile**

### Programa de teatro fórum “Cambio de sentido”

Consiste en un teatro pedagógico participativo diseñado específicamente para trabajar la educación vial cuyo objetivo es concienciar y prevenir las conductas de riesgo vial en el colectivo de jóvenes entre 14 y 16 años.

- **19 sesiones**
- **474 participantes**

### Helduen Hezkuntzako (HHE) ikasleentzako “Atzera bueltarik ez” antzerki-forum programa

Antzerki pedagogiko parte-hartzailea, helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxeetako ikasleak bideko arrisku-jokabideez kontzientziatzeko eta horiek prebenitzeko helburua daukana.

- **10 saio**
- **213 parte-hartzaile**

### Programa de teatro fórum para el alumnado de EPA “Sin vuelta atrás”

Teatro pedagógico participativo destinado a concienciar y prevenir las conductas de riesgo vial en el alumnado de los centros de educación básica de personas adultas.

- **10 sesiones**
- **213 participantes**

## BIDEKO ARRISKU-TALDEEKIN LAN EGITEN DUTEN HEZITZAILEEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA

### “Ikasgelan bideko arriskuei aurrea hartzea” ikastaroak

Prebentzioari buruzko ikastaro hori Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko prestatzaileak prestatzeko Prest Gara programaren barruan dago.

- 2 ikastaro
- 37 parte-hartzaile

## FORMACIÓN DIRIGIDA A EDUCADORES/AS DEDICADOS A TRABAJAR CON GRUPOS DE RIESGO VIAL

### Cursos de “Prevención de riesgos viales en el aula”

El curso de “Prevención de riesgos viales en aula” se incluye en el programa de formación de formadores Prest Gara del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

- 2 cursos
- 37 participantes

## BIDE-HEZKUNTZAKO PROGRAMAK GARATZEN DITUZTEN ERTZAIN ETA UDALTZAINEI PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA

### “Komunikazioaren bidezko prebentzioa” programan parte hartzen duten ertzainentzako ikastaroa

“Komunikazioaren bidezko prebentzioa” programaren barruan bideko sentsibilizazio-ekintzetan parte hartzen duten ertzain boluntarioentzako oinarrizko ikastaroak eta hobekuntza-ikastaroak.

- Ikastaro 1
- 13 parte-hartzaile

### Udaltzainei zuzendutako 1. mailako ikastaroa

Bide-hezkuntzako begirale-funtzioak bete ditzaketen udaltzainei zuzendutako oinarrizko ikastaroa.

- Ikastaro 1
- 17 parte-hartzaile

## FORMACIÓN Y APOYO AL PERSONAL DE LAS POLICÍAS LOCALES Y ERTZAINTZA QUE DESARROLLAN PROGRAMAS DE EDUCACIÓN VIAL

### Curso dirigido a ertzainas que participan en el programa de “Prevención desde la comunicación”

Cursos básicos y de perfeccionamiento dirigidos a personal voluntario de la Ertzaintza que participa en acciones de sensibilización vial dentro del programa “Prevención desde la Comunicación”.

- 1 curso
- 13 participantes

### Curso de nivel 1 dirigido a policías locales

Curso básico dirigido a Policías Locales que puedan cumplir funciones de monitores/as de educación vial.

- 1 curso
- 17 participantes

### Udaltzainei zuzendutako hobekuntza-ikastaroa

Hobekuntza-ikastaroa bide-hezkuntzako lanak dituzten udaltzainentzat.

- → 1 ikastaro
- → 10 parte-hartzaile

### Curso de perfeccionamiento dirigido a policías locales

Curso de perfeccionamiento a policías locales con tareas de educación vial.

- → 1 cursos
- → 10 participantes

## ISTRIPUAK PREBENITZEARI ETA JOKABIDE SEGURUAK SUSTATZEARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMAK KOLEKTIBO KALTEBERENTZAT: MOTOR-GIDARIAK, ADINEKOAK, TXIRRINDULARIAK ETA MPIAK

### MOTORZALEAK

### MOTOformakzioa: Motozikletak seguru gidatzeko prestakuntza-programa

Trafiko Zuzendaritzak 2025ean abian jarri duen programa berria da. Ekimena 125 cc-tik gorako motozikletak gidatzen dituzten eta administrazio-egoitza Euskadin duten pertsonen prestakuntzara zuzenduta dago. Programaren helburua da motorzaleei haien eta gainerako bide-erabiltzaileen segurtasuna bermatuko duen prebentziozko gidatze bat egiteko tresnak ematea. Doako prestakuntza da, maila guztietara egokitua.

## PROGRAMAS DE SENSIBILIZACIÓN SOBRE PREVENCIÓN DE ACCIDENTES Y FOMENTO DE COMPORTAMIENTOS SEGUROS EN LOS COLECTIVOS VULNERABLES: MOTORISTAS, PERSONAS MAYORES, CICLISTAS Y VMPS

### MOTORISTAS

### Programa formativo de conducción segura de motocicletas MOTOformakzioa

Es un nuevo programa que la Dirección de Tráfico ha puesto en marcha en 2025. La iniciativa está dirigida a la formación de personas que conducen motocicletas de más de 125 cc y que tienen su vecindad administrativa en Euskadi. El programa tiene como finalidad proporcionar a los/las motoristas herramientas para practicar una conducción preventiva que garantice su seguridad y la del resto de personas usuarias de las vías. Se trata de una formación gratuita y adaptada a todos los niveles.






MOTOformakzioak bi formatu ditu:

Pistan:

→ 4 ikastaro

→ 183 parte-hartzaile

Errepidean:

→ 6 ikastaro

→ 191 parte-hartzaile

MOTOformakzioa tiene dos formatos:

En pista:

→ 4 cursos

→ 183 participantes

En carretera:

→ 6 cursos

→ 191 participantes

## ADINEKOAK

### Adinekoak sentsibilizatzeko programa

“Arriskua gutxien espero duzun lekuan dago. 100 aldiz begiratu” 65 urtetik gorako pertsonei zuzendutako zirkulazio-ezbeharrak prebenitzeko sentsibilizazio-programa bat da.

→ 20 ekintza

→ 5.996 parte-hartzaile

## PERSONAS MAYORES

### Programa de sensibilización personas mayores

“El riesgo está donde menos te lo esperas. Anda con 100 ojos” es un programa de sensibilización para la prevención de siniestros de tráfico dirigido a personas mayores de 65 años.

→ 20 acciones

→ 5.996 participantes




### TXIRRINDULARIAK

Bilbo-Bilbo nazioarteko martxa zikloturistarekin lankidetza-hitzarmena.

- → 40.000 bizilaguni segurtasunari buruzko hiruna mezu elektroniko bidali zitzaizkien.
- → Trafiko-zuzendaria 2025eko martxoaren 23ko martxaren hasieran egon zen.

### BESTE KOLEKTIBO BATZUK

#### Espetxeetako sentsibilizazio-programa

Bide-segurtasunaren aurkako delituengatik zigorra betetzen ari direnentzako programa. Horretan antzerki-teknikak erabiltzen dira pertsona horien errealitateari buruz hausnartzeko.

- → **Ekintza 1**
- → **16 parte-hartzaile**

### CICLISTAS

Colaboración con la marcha cicloturista internacional Bilbao-Bilbao.

- → Envío de tres mailings con mensajes de seguridad vial dirigidos a 40.000 personas vinculadas con la marcha cicloturista.
- → Presencia de la Directora de Tráfico en el inicio de la marcha celebrado el 23 de marzo del 2025.

### OTROS COLECTIVOS

#### Programa de sensibilización en el entorno penitenciario

Programa destinado a personas que cumplen condena por delitos contra la Seguridad Vial en el que se usan técnicas teatrales para reflexionar sobre sus realidades.

- → **1 acción**
- → **16 participantes**

### Bide-segurtasuna lan-eremuan

Laneko bide-segurtasunari buruzko online ikastaroak, Hezkuntza Sailaren menpeko profesionalentzat.

- → 5 ikastaro
- → 69 parte-hartzaile

### Seguridad vial en el ámbito laboral

Cursos de PRL para personal del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

- → 5 cursos
- → 65 participantes

## BESTE EKINTZA BATZUK

### Eskolako agenda 2025-2026

Bide-segurtasunari buruzko edukiak dituen 2025-2026 eskolako agenda diseinatu eta argitaratu da. Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleentzat da.

- → 72.000 ale kopuru

### Puntuak eta gidabaimena berreskuratzeari begirako bideko sentsibilizazioari eta berriro hezteari buruzko ikastaroak kudeatzea

- → 420 ikastaro
- → 4.709 parte-hartzaile

### Puntuak eta gidabaimena berreskuratzeari begirako bideko sentsibilizazioari eta berriro hezteari buruzko ikastaroen eta horiek eskaintzen dituzten ikastetxeen auditoretza

- → 31 Ikastetxeen auditoretza-kopurua
- → 146 Ikastaroen auditoretza-kopurua

## OTRAS ACTUACIONES

### Agenda escolar 2025-2026

Diseño y publicación de la agenda escolar 2025-2026 con contenidos de movilidad segura, dirigida al alumnado de segundo y tercer ciclo de Educación Primaria.

- → 72.000 ejemplares

### Gestión de cursos de sensibilización y reeducación vial para la recuperación de puntos y del permiso de conducir

- → 420 cursos
- → 4.709 participantes

### Auditorías a centros y cursos de sensibilización y reeducación vial para la recuperación de puntos y del permiso de conducir

- → 31 auditorías realizadas a centros
- → 146 auditorías realizadas a cursos

## 3.2 BIDE-SEGURTASUNARI ETA MUGIKORTASUN SEGURU ETA JASANGARRIARI BURUZKO TOPAKETAK

### AESVI-KO VII. BATZAR OROKORRA

Otsailak 13
Bartzelona

Trafikoko zuzendari Estibaliz Olabarri Haurren Bide Segurtasunerako Espainiako Aliantzaren (AESVi) VII. Batzar Nagusian izan zen, Bartzelonan. Servei Català de Trànsit-en egoitzan ospatutako saioan, ikerketaren, prestakuntzaren eta zabalkundearen zutabeei buruz Aliantzak jarraituko dituen lan-ildo nagusiak onartu ziren.

### ESPAINIAKO ITS KONGRESUA

Otsailak 18-19
Madril

Trafiko Zuzendaritzak ITS España kongresuan parte hartu du, Ifeman (Madril). Hasiera saioan, Trafikoko zuzendari Estibaliz Olabarrik parte hartu zuen. Biltzarraren helburua erreferentziazko foro bilakatzea zen, mugikortasunaren eta garraio adimendunaren esparruan aurrerapenak, esperientziak eta estrategiak aztertzeko, eztabaidatzeko eta abian jartzeko.

### JARDUNALDIA: “EMAKUMEA ETA ITS”

Martxoak 11
Madril

Trafikoko zuzendariak DGTk antolatutako jardunaldi honen inaugurazioan parte hartu zuen. Bertan, emakume profesionalak bildu ziren, sistema adimendunak mugikortasunean, trafikoan eta bide-segurtasunean izaten ari diren aplikazioei buruz hitz egiteko, beren esperientzietatik eta ibilbide profesionaletatik abiatuta.

## 3.2 ENCUENTROS DE SEGURIDAD VIAL Y MOVILIDAD SEGURA Y SOSTENIBLE

### ASAMBLEA GENERAL DE AESVI

13 de febrero
Barcelona

La Directora de Tráfico, Estibaliz Olabarri, asistió en la VII Asamblea General de la Alianza Española para la Seguridad Vial Infantil, AESVi, celebrada en la sede del Servei Català de Trànsit, en Barcelona, donde se aprobaron las principales líneas de trabajo que seguirá la Alianza sobre los pilares de la investigación, la formación y la divulgación.

### CONGRESO ESPAÑOL ITS

18-19 de febrero
Madrid

Se ha participado en el Congreso ITS España celebrado en Ifema (Madrid). En la sesión de apertura institucional participó la Directora de Tráfico, Estibaliz Olabarri. El objetivo del congreso fue servir de foro nacional de referencia para el análisis, debate y puesta en marcha de avances, experiencias y estrategias en el ámbito de la movilidad y el transporte inteligente.

### JORNADA: “MUJER E ITS”

11 de marzo
Madrid

La Directora de Tráfico participó en la inauguración de la Jornada Mujer e ITS, organizada por la DGT, un encuentro que reunió a un grupo de mujeres profesionales para hablar desde sus experiencias y trayectorias profesionales de las aplicaciones que los sistemas inteligentes de transportes están teniendo en la movilidad, en el tráfico y en la seguridad vial.

### JARDUNALDIA: "ALKOHOLAREN ETA BIDE-SEGURTASUNAREN ARLOKO ESTRATEGIA BERRI BATERANTZ"

Apirilak 10
Madril

DGTk antolatuta, jardunaldi horretan alkoholaren eta gidatzearen arloan Espainian hartutako prebentzio-neurri berriak jorratu ziren, eta Europako politikak eta alternatiba desberdinen eragina aztertu ziren, ezbehar-tasaren ikuspegitik.

### BIDE-HEZKUNTZARI BURUZKO 2025eko JARDUNALDI NAZIONALAK

Apirilak 23-24
Alacant

Jardunaldi horiek Errepideen Elkarte Teknikoak (ATC) eta Espainiako Errepide Elkarteak (AEC) elkarrekin antolatu zituzten, "Bide-segurtasuna 360º. Etorkizuneko errepideen erronka globala" lelopean, Espainiako bide-arazoen eta bide-segurtasunari aplikatutako garapen teknologikoaren topagune eta eztabaida teknikorako foro gisa.

### ITS EUROPA KONGRESUA

Maiatzak 19-21
Sevilla

ERTICO-ITS Europe erakundeak antolatutako mugikortasun garbi, erresiliente eta konektatuari buruzko ITSen Europako XVI. Biltzarrean eztabaida eta saio teknikoetan parte hartu zuten adituek mugikortasun jasangarri eta konektatuaren etorkizunerako teknologiak eta berrikuntzak erakutsi zituzten.

### JORNADA: "HACIA UNA NUEVA ESTRATEGIA EN MATERIA DE ALCOHOL Y SEGURIDAD VIAL"

10 de abril
Madrid

Organizada por la DGT, esta jornada abordó las nuevas medidas preventivas adoptadas en España en materia de alcohol y conducción y analizó las políticas europeas y el impacto de las diferentes alternativas desde el punto de vista de la siniestralidad.

### JORNADAS NACIONALES DE EDUCACIÓN VIAL 2025

23-24 de abril
Alicante

Estas jornadas, organizadas conjuntamente por la Asociación Técnica de Carreteras (ATC) y la Asociación Española de la Carretera (AEC), se celebraron bajo el lema "Seguridad Vial 360º. El reto global de las carreteras del futuro" como un foro de encuentro y debate técnico de la problemática vial española y del desarrollo tecnológico aplicado a la seguridad viaria.

### CONGRESO ITS EUROPA

19-21 de mayo
Sevilla

El XVI Congreso Europeo de ITS sobre movilidad limpia, resiliente y conectada, organizada por ERTICO-ITS Europe, contó con la participación de expertos que participaron en debates y sesiones técnicas y mostraron las tecnologías e innovaciones que están dando forma al futuro de la movilidad sostenible y conectada.



### UNIPORT-EKO BATZAR OROKORRA

Ekainak 24
Getxo

Trafiko Zuzendaritzak Uniporteko Batzar Nagusian parte hartu zuen, eta logistika multimodalaren lau erronkak aztertu ziren bertan: itsasoko eta lurreko konektibitatea, berrikuntza, merkatuko posizioa eta sektorearen beraren ordezkaritza.

### ASAMBLEA GENERAL UNIPORT

24 de junio
Getxo

La Dirección de Tráfico participó en la Asamblea General de Uniport donde se analizaron los cuatro retos de la logística multimodal: conectividad marítima y terrestre, Innovación, posición en el mercado y representación del propio sector.

### ERREPIDEAREN 33. ASTEA

Irailak 10-11
Madril

Trafikoko zuzendari Estibaliz Olabarrik “Hamarkadak segurtasunaren alde lanean: itxaropenak eta esperientzia arrakastatsuak” mahai-inguruan parte hartu zuen, AECk “Emozioen kilometroak” lelopean antolatutako Errepidearen 33. astean.

### 33ª SEMANA DE LA CARRETERA

10-11 de septiembre
Madrid

La Directora de Tráfico, Estibaliz Olabarri, participó en la mesa redonda “Décadas trabajando por la seguridad: expectativas y experiencias de éxito” celebrada en la 33ª Semana de la Carretera, organizada por la AEC bajo el lema “Kilómetros de emociones”.

### JARDUNALDIA: “FURGONETAK: BIDE-SEGURTASUNAREN GAINDITU GABEKO IRAKASGAIA”

Irailak 12
Madril

DGTk furgonetei buruzko jardunaldi monografiko bat antolatu zuen. Ibilgailu mota horren parkea handitu egin da azken urteotan, logistikaren eta salgaien banaketaren gorakadak bultzatuta. Topaketaren helburua izan zen kolektibo horren bide-segurtasuna hobetzeko plan espezifiko bat egitea ahalbidetuko duen eztabaida bat irekitzea.

### JORNADA: “FURGONETAS: LA ASIGNATURA PENDIENTE DE LA SEGURIDAD VIAL”

12 de septiembre
Madrid

La DGT organizó una jornada monográfica dedicada a las furgonetas, un tipo de vehículo cuyo parque ha aumentado en los últimos años impulsado por el auge de la logística y el reparto de mercancías. El encuentro tuvo como objetivo abrir un debate que permita avanzar en la elaboración de un plan específico para mejorar la seguridad vial de este colectivo.

### AESLEMEREN XXXV. URTEURRENA

Urriak 17-18
Madril

Trafiko Zuzendaritzak parte hartu zuen, bide-segurtasunarekin, mugikortasun arduratsuarekin eta trafikoaren biktimen eta ezgaitzen duten lesioen prebentzioarekin konprometitutako erakundea den AESLEME Bizkarrezur Muineko Lesioa Aztertzeko Elkartearen 35. urteurrena ospatzeko ekitaldietan.

### XXXV ANIVERSARIO DE AESLEME

17-18 de octubre
Madrid

La Dirección de Tráfico participó en los actos de celebración del 35º aniversario de la Asociación para el Estudio de la Lesión Medular Espinal, AESLEME, una entidad caracterizada por su compromiso con la seguridad vial, la movilidad responsable y la prevención de víctimas de tráfico y lesiones discapacitantes.

## TRAFIKO ISTRIPUEN BIKTIMAK OROITZEKO MUNDUKO EGUNA

Azaroak 16
Bilbo

Trafikoko zuzendari Estibaliz Olabarrik Trafiko Istripuen Biktimak Oroitzeko Munduko Eguna dela eta Stop Violencia Vial Euskadi elkarteak antolatutako trafiko-istripuen biktimen omenezko ekitaldian parte hartu zuen. Olabarrik gogorarazi zuenez, “errepideak une batean dena alda dezake, baina ez dago saihestezina den istripurik”.

## DÍA MUNDIAL EN RECUERDO DE LAS VÍCTIMAS DE ACCIDENTES DE TRÁFICO

16 de noviembre
Bilbao

La Directora de Tráfico, Estibaliz Olabarri, participó en el acto en memoria de las víctimas de accidentes de tráfico, organizado por la asociación Stop Violencia Vial Euskadi, con motivo del Día Mundial en Recuerdo de las Víctimas de Accidentes de Tráfico. Olabarri recordó que “la carretera puede cambiarlo todo en un instante; pero ningún accidente es inevitable”.



### AUTOESKOLEN 54. KONBENTZIOA

Azaroak 21–23
Granada

Urteroko ekitaldi horretan sektoreko 400 profesional baino gehiago bildu ziren, eta esperientziak partekatzeko, erronka komunak aztertzeko eta autoeskolen eta erakunde publikoen arteko lankidetza indartzeko topagune gisa balio izan zuen, bide-segurtasuna eta gidatzearen irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko helburuarekin.

### 54ª CONVENCIÓN DE AUTOESCUELAS

21–23 de noviembre
Granada

Este evento anual reunió a más de 400 profesionales del sector. La convención sirvió como punto de encuentro para compartir experiencias, analizar retos comunes y reforzar la colaboración entre las autoescuelas y las instituciones públicas, con el objetivo de mejorar la seguridad vial y la calidad de la enseñanza de la conducción.

### ASETRABI JARDUNALDIA

Azaroak 27
Bilbo

Trafikoko zuzendariak Asetrabik antolatutako bide-segurtasunari eta erantzukizun kolektiboari buruzko jardunaldian parte hartu zuen. Estibaliz Olabarrik “Mugikortasun segurua eta iraunkorra: politika publikoak, estrategiak, prestakuntza eta sentsibilizazioa” mahai-inguruan parte hartu zuen, Juan Antonio Figueroa Garraio eta Logistika Prestakuntzako Espainiako Konfederazioko (CEFTRAL) arduradunarekin batera.

### JORNADA ASETRABI

27 de noviembre
Bilbao

La Directora de Tráfico, Estibaliz Olabarri, participó en la jornada sobre seguridad vial y responsabilidad colectiva organizada por la Asociación Empresarial de Transportes de Bizkaia, Asetrabi. Olabarri participó en la mesa redonda “Movilidad segura y sostenible: políticas públicas, estrategias, formación y sensibilización”, junto a Juan Antonio Figueroa, responsable de la Confederación Española de Formación del Transporte y la Logística (CEFTRAL).






### XXIII. HIRITARREN TOPAKETA

Azaroak 27
Bilbo

Trafikoko zuzendariak amaiera eman zion Real Automóvil Club Vasco Navarro-k (RACVN) antolatutako XXIII. Hiritarren Topaketari. Aurtengo edizioan “Mugikortasun adimenduna: berrikuntza, segurtasuna eta garraioaren etorkizuna” gaiaren inguruan egin zen topaketa.

### EUROPAKO PROGRAMETAN PARTE HARTZEA

Trafiko Zuzendaritza SCALE (Strengthening C-ITS Adoption and Lining-up across Europe) izeneko proiektuaren laguntzailea izan zen. Haren xedea Garraio Adimentsu Kooperatiboko Sistemak (C-ITS) Europan ezartzen laguntzea da. Sistema horien bitartez, ibilgailuen, azpiegituren eta beste bide-erabiltzaile batzuen arteko komunikazio eraginkorra sustatzen da. Horrela, bide-segurtasuna hobetzen du eta trafikoa eraginkorragoa bihurtzen du, ingurumenean daukan eragina murriztuz.

### XXIII ENCUENTRO CIUDADANO

27 de noviembre
Bilbao

La Directora de Tráfico clausuró el XXIII Encuentro Ciudadano organizado por el Real Automóvil Club Vasco Navarro (RACVN), que en esta edición se celebró en torno al tema “Movilidad inteligente: Innovación, Seguridad y futuro del Transporte”.

### PARTICIPACIÓN EN PROGRAMAS EUROPEOS

Participación de la Dirección de Tráfico en el proyecto SCALE (Strengthening C-ITS Adoption and Lining-up across Europe) como colaboradores, cuyo objetivo principal es impulsar la implantación de Sistemas de Transporte Inteligente Cooperativo (C-ITS) en Europa. Estos sistemas permiten la comunicación efectiva entre vehículos, infraestructuras y otros usuarios de la vía, mejorando la seguridad vial, la eficiencia del tráfico y reduciendo el impacto ambiental.

# 3.3 JARDUNALDIAK ETA TOPAKETAK

## TRAFIKOARI BURUZKO XII. JARDUNALDIA: “MUGIKORTASUN BERRIA, BETIKO ARAZOAK”

- → **Lekua: Goiuri Jauregia (Vitoria-Gasteiz)**
- → **Eguna: 2025eko azaroaren 5a**
- → **Parte-hartzaileak: 8 hizlari**
- → **Bertaratuak: 110 lagun (93 aurrez aurre eta 17 streaming-en bidez)**

2025eko Trafikoko Jardunaldiaren XII. edizioan mugikortasunean eta bide-segurtasunean adituak diren pertsonen testigantzak jaso dira, eta lekualdatzen garen moduan bizitzen ari garen eraldaketa sakonaren egoerari buruzko azterketa eta hausnarketa egin dute. Hiriarteko mugikortasuna etengabe hazten ari da, eta mugikortasunaren gorakada horrek erronka berriak ere badakartza, bide-segurtasuna erantzukizun kolektiboa dela berretsiz.

# 3.3 JORNADAS Y ENCUENTROS

## XII JORNADA DE TRÁFICO: “NUEVA MOVILIDAD, VIEJOS PROBLEMAS”

- → **Lugar: Palacio Villa Suso (Vitoria-Gasteiz)**
- → **Fecha: 5 de noviembre de 2025**
- → **Participación: 8 ponentes**
- → **Asistentes: 110 personas (93 presenciales y 17 vía streaming)**

La XII edición de la Jornada de Tráfico de 2025 ha contado con testimonios de personas expertas en movilidad y en seguridad vial que han aportado su análisis y reflexión sobre el momento de transformación profunda que estamos viviendo en la forma en que nos desplazamos. La movilidad interurbana crece de forma constante y este aumento de la movilidad también conlleva nuevos desafíos y reafirmando la idea de que la seguridad vial sigue siendo una responsabilidad colectiva.






Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburu Bingen Zupiriak inauguratu zuen jardunaldia, eta Trafikoko zuzendari Estibaliz Olabarrik eman zion amaiera. Jardunaldia, Aitor Aritzeta Psikologian doktore eta EHUko Psikologia Fakultateko irakasleak emandako ***"Mugikortasun berria, betiko arazoak: azterlanak, emaitzak eta ondorioak"*** hitzaldiarekin ireki zen. 'Hiriarteko mugikortasun berria' panela honako ponentziek osatu zuten: "Bide-segurtasuna hobetzen lagunduko duten seinale berriak", Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzako Ingeniaritzako arduradun Igor Basterretxeak aurkeztua, ***"Hiriarteko mugikortasunaren erronka handia: errepide segurua, berdea eta konektatua"***, Errepideko Espainiako Elkarteko (AEC) zuzendari nagusi Jacobo Diazek aurkeztua, eta ***"Zibersegurtasuna bide-segurtasunaren zerbitzura"***, Euskal Zibersegurtasunaren Agentziaren (Cyberzaintza) zuzendari nagusi Javier Dieguezek. 'Etorkizuneko proiektuak' panela, ***"LandaGO, mugikortasun autonomoa landa-inguruneetan"***, Amaia Sánchez, BasqueCCAMeko Project Managerraren eskutik eta ***"Asepeyon, konbentzionaletik harago, lanean mugikortasun segurua izatearen alde"***, Saioa Martínez Mauleon, Asepeyoko lurralde-koordinatzaileak osatu zuten. Eta, azkenik, 'Betiko arazoak' panelean, ***"Zero Ikuspegia Euskadin"*** ponentzia aurkeztu zen Aitor de Velasco Bizkaiko Trafikoko Lurralde Unitateko ertzainak, eta ***"Betiko arazoak mugikortasun berri batean"***, Bizkarrezur Muineko Lesioa Aztertzeko Elkartearen (AESLEME) zuzendari Mar Cogollos-ek.

La jornada, inaugurada por Bingen Zupiria, Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco, y clausurada por Estibaliz Olabarri, Directora de Tráfico del Gobierno Vasco, se abrió con la ponencia ***"Nueva movilidad, viejos problemas: Estudios, Resultados y Conclusiones"*** impartida por Aitor Aritzeta, Doctor en Psicología y profesor de la Facultad de Psicología de EHU. El panel 'Nueva movilidad interurbana' estuvo compuesto por las ponencias ***"Nuevas señales contribuyendo en la mejora de la Seguridad Vial"***, presentada por Igor Basterretxea, Responsable de Ingeniería de la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco, ***"El gran reto de la movilidad interurbana: la carretera segura, verde y conectada"***, por Jacobo Díaz, Director General de la Asociación Española de la Carretera (AEC), y ***"Ciberseguridad al servicio de la seguridad vial"***, por Javier Diéguez, Director General de la Agencia Vasca de Ciberseguridad (Cyberzaintza). En el panel 'Proyectos de futuro' se habló sobre ***"LandaGO, movilidad autónoma en entornos rurales"***, por Amaia Sánchez, Project Manager en BasqueCCAM, y ***"En Asepeyo, más allá de lo convencional, por una movilidad laboral segura"***, por Saioa Martínez, Coordinadora territorial de Asepeyo. Y, finalmente, en el panel 'Viejos problemas' se presentaron las ponencias ***"Visión Cero en el País Vasco"***, por parte de Aitor de Velasco, Ertzaina de la Unidad Territorial de Tráfico de Bizkaia, y ***"Viejos problemas en una nueva movilidad"***, de la mano de Mar Cogollos, Directora de Asociación para el Estudio de la Lesión Medular Espinal (AESLEME).



## INNOVABIDE SAREKO ENPRESEN VI. TOPAKETA

2025eko abenduaren 11n, Innovabide Sareak enpresen arteko VI. Topaketa egin zuen Euskadiko Artxibo Historikoan, Bilbon. Ekitaldi horretan, Innovabide 2025 Aitorpena eman zioten Bridgestone enpresari, Bide Segurtasunaren kudeaketan erakutsitako konpromiso irmoagatik eta praktika onengatik, Innovabide Sarearekin daukan inplikazioarekin batera. Era berean, aipamen bereziak eman zizkioten honako hauei: alde batetik, Lantegi Batuak Fundazioari eta Urkide Ikastetxeari.

Innovabide Eusko Jaurlaritzak 2017an sortutako Euskal Enpresen Sarea da. Sare hori Trafiko Zuzendaritzaren ekimenetako bat da, euskal enpresako mugikortasun seguruari eta bide-segurtasunari buruzkoa, Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Itunarekin eta Euskadiko Segurtasun Publikoko 2020-2025 Plan Orokorrarekin bat datorrena. Gaur egun, Innovabidek kudeaketa aurreratutik bide-segurtasunarekin konprometitutako 72 erakunde biltzen ditu.

## VI ENCUENTRO DE EMPRESAS DE LA RED INNOVABIDE

El 11 de diciembre de 2025 la Red Innovabide celebró su VI Encuentro entre empresas en el Archivo Histórico de Euskadi, en Bilbao. En este acto se hizo entrega del Reconocimiento Innovabide 2025 a la empresa Bridgestone, por su firme compromiso y sus buenas prácticas en la gestión de la Seguridad Vial, y por su implicación con la Red Innovabide. Asimismo, se entregó también sendas Menciones especiales a Lantegi Batuak y al colegio Urkide Ikastetxea.

Innovabide es la Red de Empresas Vascas creada por el Gobierno Vasco en 2017. Esta red es una de las iniciativas de la Dirección de Tráfico sobre movilidad segura y seguridad vial en la empresa vasca, alineada con el Pacto Vasco por la Seguridad Vial y el Plan General de Seguridad Pública de Euskadi 2020-2025. Actualmente, Innovabide aglutina a 72 entidades comprometidas con la seguridad vial desde la gestión avanzada.

## 3.4 INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA

## 3.4 INFORMACIÓN Y PUBLICIDAD

### WEBGUNEA / WEB

WWW.TRAFIKOA.EUSKADI.EUS

| | | |
|---|---|---|
| erabiltzaileak | 213.681 | personas usuarias |
| saioak | 400.767 | sesiones |
| ikustaldiak | 746.514 | visitas |

### 011

| | | |
|---|---|---|
| erantzundako kontsultak | 23.420 | consultas atendidas |
| koordinazioan | 36.694 | coordinación |

### TWITTER

@TRAFIKOAEJGV

| | | |
|---|---|---|
| jarraitzaileak | 34.795 | personas seguidoras |
| postak | 130.319 | posts |

(2025eko abenduaren 31n metatua) / (Acumulado a 31 de diciembre del 2025)

### YOUTUBE

YOUTUBE.COM/TRAFIKOAEJGV

| | | |
|---|---|---|
| bisualizazioak | 68.600 | visualizaciones |
| igo diren bideoak | 41 | vídeos subidos |
| harpidedunak | 49 | personas suscriptoras |

## KOMUNIKABIDEAK

2025ean, Trafiko Zuzendaritzak 6 prentsaurreko eman eta 55 prentsa-ohar egiteaz gain, komunikabideen 67 eskaera bideratu zituen guztira.

- → **6 Prentsaurreko**
- → **55 Prentsa Ohar**
- → **67 Komunikabideen eskaerak**

## PUBLIZITATE-KANPAINAK

2025ean 'Zero Ikuspegia. Errepidean heriotza bakar bat ez baita onargarria ´ kanpaina burutu zen, udan zabaldua: ekainaren 27tik abuztuaren 31ra.

## MEDIOS DE COMUNICACIÓN

A lo largo de 2025, la Dirección de Tráfico ha ofrecido 6 ruedas de prensa, ha emitido 55 notas de prensa y ha tramitado un total de 67 peticiones de medios de comunicación.

- → **6 Ruedas de prensa**
- → **55 Notas de prensa**
- → **67 Peticiones de medios de comunicación**

## CAMPAÑAS DE PUBLICIDAD

En 2025 se ha realizado la campaña 'Visión Zero. Ninguna muerte es asumible', difundida en verano: del 27 de junio al 31 de agosto.



# 3.5 ARGITALPENAK

## TRAFIKO ISTRIPUEN URTEKARI ESTATISTIKOA

2024ko Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa argitaratu da. Tresna horrek aukera ematen du trafiko-istripuetan eragina izaten duten faktoreei buruzko datuak ezagutzeko, istripu-tasaren arazoaren neurria zehazteko eta biktimak eragiten dituzten trafiko-istripuen inguruabarrak aztertzeko. Azken finean, trafiko-istripuen kopurua eta haien larritasun-maila murrizteko xedez, erabakiak hartzen lagunduko duen tresna eraginkorra, fidagarria eta nahitaezkoa da.

# 3.5 PUBLICACIONES

## ANUARIO ESTADÍSTICO DE ACCIDENTES DE TRÁFICO

Se ha publicado el Anuario Estadístico de Accidentes de Tráfico de 2024, que es una herramienta que permite conocer los datos relativos a los factores que inciden en los accidentes de tráfico, ayuda a delimitar la magnitud del problema de la accidentalidad y posibilita el análisis de las circunstancias en que se producen los accidentes de tráfico con víctimas. Se trata de un instrumento eficaz, fiable e imprescindible para la toma de decisiones dirigidas a reducir el número de accidentes de tráfico y la gravedad de los mismos.

# 3.6 TRAFIKOAREN ETA BIDE-SEGURTASUNAREN IKERKETA

## TRAFIKOARI BURUZKO AZTERLANAK

Bide-segurtasunari buruzko 11 azterlan edo txosten prestatu genituen: Arkaute N-104, Armiñon AP-1, Atauri A-132, Berriatua BI-633, El Campillar A-124, Leioa BI-637, Orio-Zarautz N-634, Gaintxurizketa GI-636, Azazetako mendatea A-132, Zalla BI-3651, Zarautz - Zumaia N-634.

## GARRAIO BEREZIAK

Tresna bat garatzen ibili gara garraio bereziek egin ditzaketen ibilbideak kalkulatu ahal izateko –haien dimentsioen eta pisuen arabera–, baimendutako ibilbideetan egindako bidaien kontrola eta jarraipena egiteko eta sortutako informazio guztia ustiatzeko. Hala, erabakiak hobeto hartu ahal izango dira garraio horiek kudeatzeari dagokionez. Eusko Jaurlaritzaren Garraio Zuzendaritzak plataforma bat dauka garraio berezietarako baimenen eskaera telematikoak egiteko eta geroago EAEko lurraldean zehar garraio bereziek egindako joan-etorrien jarraipena eta kontrola egiteko. Gaur egun, baimendutako eta erabilitako ibilbideen jarraipena eta kontrola eskuragarri daude Android gailuetan, eta, laster, iOSen ere bai.

# 3.6 INVESTIGACIÓN DE TRÁFICO Y SEGURIDAD VIAL

## ESTUDIOS DE TRÁFICO

Se han analizado o realizado 11 estudios o informes de seguridad vial: Arkaute N-104, Armiñón AP-1, Atauri A-132, Berriatua BI-633, El Campillar A-124, Leioa BI-637, Orio-Zarautz N-634, Gaintxurizketa GI-636, Puerto de Azaceta A-132, Zalla BI-3651, Zarautz - Zumaia N-634.

## TRANSPORTES ESPECIALES

Se está desarrollo de una herramienta que permitirá calcular las rutas posibles de los transportes especiales -en función de sus dimensiones y pesos-, el control y seguimiento de los recorridos efectivos por las rutas autorizadas y la explotación de toda la información generada para una mejor toma de decisiones en la política de gestión de dichos transportes. La DTGV dispone de una plataforma para la realización de solicitudes telemáticas de autorizaciones de transportes especiales y su posterior seguimiento y monitorización de las rutas realizadas por los transportes especiales en tránsito por el territorio de la CAE. Actualmente, el seguimiento y control de las rutas autorizadas y utilizadas son disponible para dispositivos Android y, en breve, en iOS también.

## KUDEAKETA-TRESNAK

GeoTraffic aplikazioaren prestazioak hobetu dira. Horren bitartez, trafikoaren unean uneko egoeraren jarraipena egin eta txosten historikoak presta daitezke GPSren datuetatik abiatuta.

## INTENTSITATEAK KALKULATZEKO TRESNA

Aurreko urteetan intentsitateak kalkulatzeko garatutako tresnak prestazio hobeak ditu. Horretarako, kurba-ereduak hobetu, emaitzak kalkulatzeko eta aurkezteko erabiltzen den datu-base historikoa handitu eta istripu-tasaren datu historikoak erregistratzeko funtzionalitateak aldatu dira.

## BIDE-SEGURTASUNEKO AZTERLANAK EGITEKO ANALISI-TRESNA

Road Safety izeneko tresnaren prestazioak hobetu dira. Tresna horrek istripuen kausak eta faktoreak aztertzea errazten du, batez ere abiadura, kalitate handiagoko bide-segurtasuneko azterlanak egiteko.

## BIKI DIGITALA

Trafiko Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Plangintzaren Zuzendaritzaren lankidetzarekin, EAEko garraio-eredu integrala garatu du. Proiektu horrek helburu bikoitza dauka: alde batetik, plataforma bat eraikitzea, haren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoaren eta garraioaren biki edo eredu bikoiztu digitala eskura izateko; eta bestetik, trafikoaren eta garraioaren off line modelizazioa prestatzea, erabakiak hartzen laguntzeko.

## HERRAMIENTAS DE GESTIÓN

Se han mejorado las prestaciones de la aplicación GeoTraffic que monitoriza el estado del tráfico y realiza informes históricos a partir de datos GPS.

## HERRAMIENTA DE CÁLCULO DE INTENSIDADES

Se han mejorado las prestaciones de la herramienta para el cálculo de intensidades desarrollada en años anteriores mediante la mejora de las curvas-patrón, la ampliación de la base de datos histórica que se utiliza para el cálculo y la presentación de resultados, además de modificar funcionalidades de registro de datos históricos de accidentalidad.

## HERRAMIENTA DE ANÁLISIS PARA LA REALIZACIÓN DE ESTUDIOS DE SEGURIDAD VIAL

Se han mejorado las prestaciones la herramienta denominada Road Safety que facilita el análisis de las causas y factores concurrentes en los accidentes, especialmente la velocidad, para la elaboración de estudios de seguridad vial de mayor calidad.

## GEMELO DIGITAL

Se ha puesto en marcha el desarrollo de un modelo de transporte integral de la CAPV con la colaboración de la Dirección de Tráfico y la Dirección de Planificación del Transporte del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transporte del Gobierno Vasco. Este proyecto persigue, por un lado, la construcción de una plataforma que permita disponer de un gemelo digital del tráfico y transporte en el País Vasco y, por otro lado, la modelización offline del tráfico y transporte que sirva de la ayuda en la toma de decisiones.



## V16 BALIZA

2025ean, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzak Baliza V16 aplikazioa ezarri eta erabili du. Aipatutako tresna teknologiko hau Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareko gorabeheren kudeaketa hobetzera bideratuta dago. Aplikazio horri esker, V16 balizen aktibazioak igorritako abisu guztiak modu zentralizatuan jaso daitezke denbora errealean. Abisu horiek Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroaren aretotik kudeatzen dira. Bertan, mezu horiek analizatu eta aztertzeaz gain, tratamendu operatiboa ematen zaie, zirkulazioaren gertakaria izan diren berresteko edo ezesteko. Hala, errepideetako arrisku-egoerei koordinazio handiagoz, arinago eta seguruago erantzuteko moduan daude.

## ITS EKIPAMENDU BERRIAK

Hiru radar-kabina berri jarri dituzte GI-3440 eta GI-636 errepideetan, Hondarribian. Gainera, ibilgailu astunen ibilbidea kontrolatzeko sistemaren ekipamenduaren berrikuntza teknologikoa egin da. Era berean, errepidean ibilgailu-edukieraren neurgailuak instalatu dira, begizta magnetikoko gailuen ordez radar-teknologia erabiltzen dutenak jarrita, zoladuran eraginik ez dutenak. Gainera, ikusmen artifizialeko kamerak kokatu dituzte matrikulak irakurtzeko eta trafikoari buruzko azterketak egiteko.

## PREBENTZIOA

Ugaldebieta, azaroak 15

ITS mantentze-lanetako azpikontratetako langileak homologatzeko urteko prestakuntza egin dute. Bertan, obren seinaleztapen mugikorreko prozedura ikasi dute, neurri seguruen inguruan kontzientziatzeko eta gaitzeko, arrisku-egoerak kudeatzeko balio duten ezagutzak helarazteko asmoz.

## BALIZA V16

Durante el año 2025, el Departamento de la Dirección de Tráfico ha llevado a cabo la implantación y utilización del aplicativo Baliza V16, una herramienta tecnológica orientada a la mejora de la gestión de incidencias en la red viaria de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Este aplicativo permite la recepción centralizada, en tiempo real, de todos los avisos emitidos por la activación de balizas V16, los cuales son gestionados desde la sala del CGTE, donde se procede a su análisis, estudio y tratamiento operativo, determinando su anulación o validación como incidencia de tráfico, contribuyendo así a una respuesta más ágil, coordinada y segura ante situaciones de riesgo en las carreteras.

## NUEVOS EQUIPAMIENTOS ITS

Se han instalado tres nuevas cabinas de radar en la carretera GI-3440 y GI-636 en Hondabirri. Además, se ha procedido a la renovación tecnológica del equipamiento del sistema de control de recorrido de vehículos pesados. Igualmente, se han instalado aforos en carretera sustituyendo los aforadores de lazo magnético por aforadores no intrusivos en el pavimento que utilizan tecnología radar y se han instalado cámaras de visión artificial para la lectura de matrículas con el fin de realizar estudios y análisis de tráfico.

## PREVENCIÓN

Ugaldebieta 15 de noviembre

Se ha realizado la formación anual de homologación para los operarios de las subcontratas de mantenimiento ITS referente al procedimiento de señalización móvil de obras, con objeto de concienciar y capacitar medidas seguras mediante la transmisión de conocimientos que sirvan para gestionar situaciones de riesgo.

# 3.7 TRAFIKOAREN KUDEAKETA ETA KONTROLA

## TRAFIKOA ZAINTZEKO ETA KONTROLATZEKO KANPAINAK

Trafiko Zuzendaritzak aurkeztu zuen Trafikoa Zaintzeko eta Kontrolatzeko 2025eko Kanpainen Egutegia otsailaren 14an, Ertzaintzak Udaltzaingoekin elkarlanean prestatutakoa. 2025ean 32 kanpaina planifikatu zituzten, Euskadin istripu larriak eragiten dituzten portaera arriskutsu nagusiei aurrea hartzeko. Aurreko urtearekin alderatuta, 2025ean motorzaleen taldea kontrolatzeko eta zaintzeko kanpainen alorrean bat gehiago egin zuten (guztira 5 izan ziren). Bestetik, ez zen aldatu honako eremuetako kanpaina-kopurua: alkohola eta drogen erabilera (6); abiadura (6); eta arreta galtzea (5). Gainerako kanpainak honako hauek izan ziren: eskola-garraioa; baldintza teknikoak; autobusak eta kamioiak; eta uhalaren erabileraren kontrola.

Kanpaina hauetan, Ertzaintzak 4.961 operatibo burutu zituen. Horietan, 157.837 ibilgailu kontrolatu ziren guztira eta kasuen % 12,2an arau-hausteren bat antzeman zen.

# 3.7 GESTIÓN Y CONTROL DEL TRÁFICO

## CAMPAÑAS DE VIGILANCIA Y CONTROL DE TRÁFICO

El 14 de febrero se presentó el Calendario de Campañas de Vigilancia y Control de Tráfico que la Ertzaintza, en coordinación con las Policías Locales, llevó a cabo en 2025. En total se planificaron 32 campañas centradas en prevenir los principales comportamientos de riesgo que provocan accidentes graves en Euskadi. En comparación con el año anterior, en 2025 se realizó una campaña más de control y vigilancia del colectivo motorista (fueron 5) y se mantuvo el número de campañas de alcohol y drogas (6), velocidad (6) y distracciones (5). El resto de las campañas realizadas fueron de transporte escolar, condiciones técnicas, autobuses y camiones, y control del uso del cinturón.

En estas campañas, la Ertzaintza llevó a cabo un total de 4.961 operativas en las que se controlaron un total de 157.837 vehículos y en el 12,2% de los casos se detectó alguna infracción.



## ERTZAINTZAK 2025EAN EGINDAKO KONTROL-KANPAINAK

## CAMPAÑAS DE CONTROL REALIZADAS POR LA ERTZAINTZA EN 2025

| | Kontrol kopurua / N.º de controles | Kontrolatutako ibilgailuak / Vehículos controlados | Frogen kopurua / N.º de pruebas | Arau-hausteen kopurua / N.º de infracciones | Arau-hausteen % / % de infracciones |
|---|---|---|---|---|---|
| Alkohola eta drogak Alcohol y drogas | 1.325 | 9.431 | 9.751 | 485 | 5,0 |
| Alcohola / Alcohol | | | 8.948 | 243 | 2,7 |
| Drogak / Drogas | | | 803 | 242 | 30,1 |
| Motoak asteburua Especial motos fin de semana | 932 | 3.424 | | 449 | 13,1 |
| Ibilgailuen baldintza teknikoak Condiciones técnicas de vehículos | 331 | 1.632 | | 192 | 11,8 |
| Uhalak eta hls (roadpol) Cinturones y sri (roadpol) | 265 | 1.128 | | 22 | 2,0 |
| Distrakazioak Distracciones | 1.363 | 5.734 | | 331 | 5,8 |
| Eskola-garraioa Transporte escolar | 36 | 295 | | 26 | 8,8 |
| Garraioak: kamioiak adr + kamioiak eta autobusak (roadpol) Transportes: camiones adr + camiones y autobuses (roadpol) | 209 | 602 | | 138 | 22,9 |
| Garraioak: kaimoiak pisua transportes: peso de camiones | 111 | 457 | | 44 | 9,6 |
| Garraioak: furgonetak pisua Transportes: peso de furgonetas LD | 45 | 218 | | 8 | 3,7 |
| Abiadura Velocidad | 344 | 134.916 | | 17.606 | 13,0 |
| **GUZTIRA / TOTAL** | **4.961** | **157.837** | | **19.301** | **12,2** |



## NEGUKO BIDEZAINTZA-PLANA

2025ean, Neguko Bidezaintza Plana 5 aldiz aktibatu zuten Jarraipen eta Informazio Fasean (elur-maila 1.000 metrotik behera, prezipitazio handiekin batera). Horietatik, bitan fase operatibora igaro ziren, elur-kota 700 metrotik behera jaitsi zelako, euri handiekin batera.

Mobilizatutako bitartekoak honako hauek izan ziren: Foru Aldundien edota Autobideen esku dauden elurra kentzeko makinak (215); Trafiko Zuzendaritzako garabi astunak (7); eta Bideak Koordinatzeko Postuak (Ertzain batek eta Errepideak Kontserbatzeko teknikari batek osatutako patruilak, hiru Lurralde Historikoetako bide-sarearen egoera batera ebaluatzea helburu dutenak).

## TRAFIKO ARLOKO OPERAZIO BEREZIAK

Udako Irteera Operazioan, ohiko seinaleztapen operatiboak egin ziren uztaileko azken asteburuan eta abuztuko lehenengo asteburuan (uztailaren 25etik 27ra eta abuztuaren 1etik 3ra) nazioarteko trafikoaren arintasuna bermatzeko asmoz, Burgos-Madril noranzkoan, hurrengo lotune hauetan: AP-1/N-622 (Etxebarri-Ibiñan) eta N-622/A-1 (Gasteizen). Aldez aurretik, ekainaren hasieran, eta behin-behinean, AP-8/AP-1/N-622/A-1 nazioarteko igarobidearen informazio-kartelak jarri ziren Portugal/Maroko norabidean, bide-sare nagusiko hainbat gune estrategikotan, ibilbidearen barruan erregaiz hornitzeko gune hurbilenei buruzko informazio-kartelekin batera. Bi kartel mota horiek irailaren erdialdean kendu zituzten.

Bestalde, udako itzuleraren operazioan, seinaleztatzeko lanak egin ziren Armiñongo lotunean, honako egun-tarteetan: abuztuaren 21etik 24ra arte eta abuztuaren 28tik 31ra arte (A-1aren eta AP-1 zaharraren arteko lotunea, Gasteizko noranzkoan). Operatibo hori Pazko Astelehenean ere burutu zuten (apirilaren 21ean), Aste Santuko Itzulera Operazioa zela eta.

## PLAN DE VIALIDAD INVERNAL

En 2025 el Plan de Vialidad Invernal se activó en 5 ocasiones en su Fase de Seguimiento e Información (cota de nieve por debajo de los 1.000 metros con precipitaciones importantes). De ellas, en 2 ocasiones se procedió a pasar a la Fase Operativa, por descenso de la cota de nieve por debajo de los 700 metros, acompañado de precipitaciones intensas.

Los medios movilizados fueron máquinas quitanieves de las Diputaciones Forales/Autopistas (215), grúas pesadas de la Dirección de Tráfico (7) y los Puestos de Coordinación Vial (patrullas compuestas por un/una agente de la Ertzaintza y un/una técnico de Conservación de Carreteras, con la misión de evaluar de forma conjunta el estado de la red viaria en los tres Territorios Históricos).

## OPERACIONES ESPECIALES DE TRÁFICO

Durante la Operación Salida del verano, se llevaron a cabo las operativas habituales de señalización para garantizar la fluidez del tráfico internacional en el último fin de semana de julio y en el primer fin de semana de agosto (del 25 al 27 de julio y del 1 al 3 de agosto), en los enlaces AP-1/N-622 (en Etxebarri-Ibiña) y N-622/A-1 (en Vitoria-Gasteiz), sentido Burgos-Madrid. Previamente, a principios del mes de junio y de forma provisional, se instalaron carteles informativos de la ruta de tránsito internacional AP-8/AP-1/N-622/A-1 con destino Portugal/Marruecos en varios puntos estratégicos de la red viaria principal, así como carteles informativos de las áreas de repostaje más próximas ubicadas dentro de la ruta. Ambos tipos de carteles fueron retirados a mediados del mes de septiembre.

Por otra parte, durante la Operación Retorno estival, se realizaron operativos de señalización en el nudo de Armiñón los siguientes días: del 21 al 24 de agosto y del 28 al 31 de agosto (enlace de la A-1 con la salida de la antigua AP-1, sentido Vitoria-Gasteiz). Este mismo operativo también fue ejecutado el Lunes de Pascua (21 de abril), con ocasión de la Operación Retorno de Semana Santa.

## ERRESKATE-GARABI ARINEN ZERBITZUA

2025eko abenduan Garabi Arinen Zerbitzua ezarri zuten Gipuzkoan. Zerbitzu hau prebentziorako ezarri zuten Donostialdearen inguruko bide-sare nagusiaren kokaleku estrategikoetan (GI-636, GI-20, GI-41, GI-11 eta N-1 eta A-15 errepideen zati bat). Honetan, hiru garabi egotea aurreikusita dago, trafiko-dentsitate handieneko orduetan, goizez eta arratsaldez, astelehenetik ostiralera. Zerbitzua matxuratutako edo istripua izandako ibilgailuak berehala kentzean datza. Hala, Ertzaintzak zehaztu behar die gertuen dagoen leku segurua eta bertara eraman ibilgailua, handik beharrezko laguntza eskatu ahal izateko, betiere baldintza egokietan bide-segurtasunari dagokionez. Zerbitzuaren helburua bikoitza da: alde batetik, trafiko arloko puntako orduetan sor daitezkeen auto-ilarak murriztea; eta bestetik, bidean oztopoak egotearen ondorioz istripu berriak izateko arriskua saihestea edo murriztea. Bizkaian duela urte batzuetatik dagoenaren antzeko zerbitzua da, Ertzaintzarekin eta 112 SOS-Deiak zerbitzuarekin koordinatuta, Bilboaldeko metropolian (A-8an eta sarbideetan). Orain arte emaitza onak izan ditu.

## SERVICIO DE GRÚAS LIGERAS DE RESCATE

Durante el mes de diciembre de 2025 se ha implantado el Servicio de Grúas Ligeras en el T.H. de Gipuzkoa. Este Servicio, de carácter preventivo, contempla la presencia de tres grúas en ubicaciones estratégicas de la red viaria principal que circunda Donostialdea (GI-636, GI-20, GI-41, GI-11 y parte de N-1 y A-15) en las horas de mayor densidad de tráfico, mañana y tarde, de lunes a viernes. El Servicio consiste en la inmediata retirada del vehículo averiado o accidentado al lugar seguro más cercano que determine la Ertzaintza, desde donde puede ser solicitada la asistencia del vehículo en condiciones de seguridad vial. El objetivo del Servicio es doble: por una parte, disminuir las retenciones que se pueden generar en las horas punta de tráfico y, por otra, evitar o disminuir el riesgo de nuevos accidentes como consecuencia de la presencia de obstáculos en la vía. Se trata de un Servicio similar al existente desde hace varios años en el T. H. de Bizkaia, en coordinación con Ertzaintza y 112 Emergencias SOS-Deiak, en el entorno metropolitano de Bilbao (A-8 y accesos), con resultados satisfactorios.







4

# ADMINISTRAZIO PROZEDURAK

# PROCEDIMIENTOS ADMINISTRATIVOS

## 4.1 ZEHAZPEN-ESPEDIENTEAK ETA BAIMENAK

- Trafiko-araudiaren hausturak zehatzeko espediente amaituen kopurua: 271.270
- Geldialdirik izan ez duten atzerriko matrikuladun ibilgailuen abiadura arloko arau-hausteak zehatzeko espedienteen kopurua: 40.257
- Administrazio-bidean ebatzitako errekurtsoen kopurua: 2.657
- Ibilgailuetarako baimen berezien kopurua, beren ezaugarri teknikoak edo garraiatutako zama zatiezinak direla eta erregelamendu bidez ezarritako gehieneko masak eta neurriak gainditzen dituztenean: 6.493
- Konposizio euromodularreko ibilgailuetarako (EMS) baimen-kopurua: 408
- Ibilgailuen altari, baxari eta aldaketei lotutako espedienteen izapide-kopurua, gidari, langile eta ibilgailuen eskola partikularrei dagokienez: 440
- Lokalen eta ibilgailuen azterketa-kopurua: 190

## 4.1 EXPEDIENTES SANCIONADORES Y AUTORIZACIONES

- Expedientes sancionadores por infracciones a la normativa de tráfico finalizados: 271.270
- Expedientes sancionadores por infracciones de velocidad de vehículos con matrícula extranjera sin parada finalizados: 40.257
- Recursos resueltos en vía administrativa: 2.657
- Autorizaciones especiales para los vehículos que, por sus características técnicas o por la carga indivisible que transporten, superen las masas y dimensiones máximas reglamentariamente establecidas: 6.493
- Autorizaciones a vehículos de composición Euromodular (EMS): 408
- Expedientes de alta, baja y modificaciones de vehículos respecto a escuelas particulares de personas conductoras, personal y vehículos: 440
- Inspecciones de locales y de vehículos: 190

- Zirkulazio-baimen berezien kopurua trafiko arloko murrizketak dituzten egunetan: 192
- Obretarako eta bestelako ekitaldietarako jarraibide-kopurua: 5.949

- Autorizaciones especiales de circulación en fechas restrictivas: 192
- Instrucciones de obras y otros eventos: 5.949

## 4.2 KIROL PROBAK

EAEko herriguneen arteko bideetatik osorik edo zati batean igarotako lasterketei, lehiaketei, txapelketei eta kirol-probei dagokienez, Trafiko Zuzendaritzak horiek burutzeko baimena eman eta horiei buruzko informazioa eskaintzen du.

- Trafiko Zuzendaritzak emandako baimen-kopurua: 267
- Trafiko Zuzendaritzak izapidetutako eta DGTek baimendu beharreko espediente-kopurua: 29

EAEn egindako kirol arloko probetan mobilizatutako baliabideak (Ertzaintzak lagundutakoei buruzko datuak):

- 2.321 Agenteak
- 813 Autoak
- 1.173 Motorrak

## 4.2 PRUEBAS DEPORTIVAS

La Dirección de Tráfico autoriza e informa sobre las carreras, concursos, certámenes y pruebas deportivas en general, que discurran total o parcialmente por vías interurbanas de la CAE.

- Autorizaciones concedidas por la Dirección de Tráfico: 267
- Expedientes tramitados por la Dirección de Tráfico y a autorizar por la DGT: 29

Recursos movilizados en las pruebas deportivas celebradas en la CAE (datos de acompañamiento de la Ertzaintza):

- 2.321 Agentes
- 813 Coches
- 1.173 Motos

## 4.3 BIDE-SEGURTASUNEKO BATZORDEA

- Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bilera (2025/03/06).
- Osoko Bilkuraren ezohiko bilkura (2025/03/06).

## 4.3 COMISIÓN DE SEGURIDAD VIAL

- Reunión del Pleno y del Comité Permanente (06/03/2025).
- Sesión extraordinaria del Pleno (06/03/2025).




## 4.4 INSTRUKZIOAK

- 1/2025 Jarraibidea, murrizketa bereziak dituzten egunetan zirkulatzeko baimen bereziak ematekoa.
- 2/2025 Instrukzioa, Trafikoaren eta ibilgailuen zirkulazioaren arloko administrazio-prozeduretan baldintzak gelditzeko eta epeak etetekoa, azaroaren 5eko 6/2024 Errege Lege Dekretua indarrean jarri ondoren (DANAk –Tanta Hotzak– urriaren 28tik azaroaren 4ra arte eragindako kalteak direla eta herrietan hartu beharreko premiazko neurriei buruzkoa).
- 3/2025 Jarraibidea, Tren turistikorako zirkulazio-baimen osagarria ematekoa.
- 4/2025 Jarraibidea, 2025ean trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko kanpainak zehaztekoa.
- 5/2025 Jarraibidea, garraio bereziko araubidean dauden ibilgailuetarako eta obra eta zerbitzuetako ibilgailu berezietarako zirkulazio-baimen osagarriak emateko irizpideak zehaztekoa.
- 6/2025 Jarraibidea, ibilgailu-gidarien eskola partikularretako altak ematekoa, Eskolako titularraren izenean ez daudenean.

## 4.4 INSTRUCCIONES

- Instrucción 1/2025, Autorizaciones especiales para circular en fechas especialmente restrictivas.
- Instrucción 2/2025, Suspensión de términos e interrupción de plazos en los procedimientos administrativos en materia de tráfico y circulación de vehículos tras entrada en vigor del Real Decreto-ley 6/2024, de 5 de noviembre, sobre medidas urgentes ante los daños producidos por la DANA entre el 28 de octubre y el 4 de noviembre, en las poblaciones afectadas.
- Instrucción 3/2025, Autorización complementaria de circulación para tren turístico.
- Instrucción 4/2025, Campañas de vigilancia y control de tráfico durante el año 2025.
- Instrucción 5/2025, Criterios para otorgar las autorizaciones complementarias de circulación para vehículos en régimen de transporte especial y vehículos especiales de obras y servicios.
- Instrucción 6/2025, Altas en las escuelas particulares de conductores de vehículos que no constan a nombre del titular de la escuela.

- → 7/2025 Jarraibidea, Gidarien eskola partikularretan aplikatu beharreko frankizien araubidea zehaztekoa.

- → 8/2025 Jarraibidea, 8/2016 Instrukzioan eta bertsio bateratuan jasotako konfigurazio euro-modularreko multzoetarako zirkulazio-baimen bereziaren indarraldia aldatzekoa.

- → 9/2025 Jarraibidea, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra aldatzekoa, trafikoa seinaleztatzeari dagokionez, 2025eko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

- → 10/2025 Jarraibidea, ziklomotorrak gidatzeko 1988ko urtarrilaren 1a baino lehen jaiotako Frantziako herritarrentzat Frantzian emandako baimenen berri ematekoa.

- → 11/2025 Jarraibidea, Nortasun Agiri Nazionalaren bertsio digitalaren berri ematekoa.

- → 13/2025 Jarraibidea, konfigurazio euro-modularreko multzoak eta zirkulazio-baldintzak jakinaraztekoa.

- → 14/2025 Jarraibidea, ibilgailu pertsonal arinetarako (VPL) erantzukizun zibileko nahitaezko aseguruaren berri ematekoa eta hura indarrean jartzeko data jakinaraztekoa.

- → Instrucción 7/2025, El régimen de franquicias a aplicar en las escuelas particulares de conductores.

- → Instrucción 8/2025, Modificación de la vigencia de la Autorización especial de circulación para conjuntos en configuración euro-modular recogidos en la Instrucción 8/2016 y versión consolidada.

- → Instrucción 9/2025, Modificación del Reglamento General de Circulación, en materia de señalización de tráfico y con efectos desde el 1 de julio de 2025.

- → Instrucción 10/2025, Permisos expedidos en Francia para conducir ciclomotores y ciudadanos franceses nacidos antes del 1 de enero de 1988.

- → Instrucción 11/2025, Versión digital del Documento Nacional de Identidad.

- → Instrucción 13/2025, Conjuntos en configuración euro-modular y condiciones de circulación.

- → Instrucción 14/2025, Seguro obligatorio de responsabilidad civil para vehículos personales ligeros (VPL) y su entrada en vigor.



## 4.5 EBAZPENAK

- Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 30ekoa, Trafiko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplinara bideratutako zinemometroen irudi osagarriak hartzeko eta erreproduzitzeko gailuak instalatzeko eta erabiltzeko baimena ematen duena.

- Ebazpena, 2025eko maiatzaren 23koa, Trafikoko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplinara bideratutako zinemometroen irudi osagarriak hartzeko eta erreproduzitzeko gailuak instalatzeko eta erabiltzeko baimena ematen duena.

- Ebazpena, 2025eko ekainaren 10ekoa, Trafiko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplinarako irudiak hartzeko gailuak instalatzeko eta erabiltzeko baimena ematen duena.

- Ebazpena, 2025eko uztailaren 15ekoa, Trafiko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplinarako irudiak hartzeko gailuak izango dituzten radar-kabinak instalatzeko eta erabiltzeko baimena ematen duena.

- Ebazpena, 2025eko abuztuaren 8koa, Trafiko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplinarako irudiak hartzeko gailuak izango dituzten radar-kabinak instalatzeko eta erabiltzeko baimena ematen duena.

## 4.5 RESOLUCIONES

- Resolución de 30 de enero de 2025 de la Directora de Tráfico, por la que se autoriza la instalación y uso de dispositivos de captación y reproducción de imágenes complementarios de cinemómetros destinados al control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en la red viaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Resolución de 23 de mayo de 2025, de la Directora de Tráfico, por la que se autoriza la instalación y uso de dispositivos de captación y reproducción de imágenes complementarios de cinemómetros destinados al control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en la red viaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Resolución de 10 de junio de 2025, de la Directora de Tráfico, por la que se autoriza la instalación y uso de dispositivos de captación de imágenes destinados al control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en la red viaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Resolución de 15 de julio de 2025, de la Directora de Tráfico, por la que se autoriza la instalación y uso de cabinas de radar que albergarán dispositivos de captación de imágenes destinados al control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en la red viaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Resolución de 8 de agosto de 2025, de la Directora de Tráfico, por la que se autoriza la instalación y uso de cabinas de radar que albergarán dispositivos de captación de imágenes destinados al control, regulación, vigilancia y disciplina del tráfico en la red viaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

## 4.6 ZEHAPEN-ESKUMENAK BERE GAIN HARTZEA

Zehatzeko eskumenak hartu genituen trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloan, udalerri hauetako herri barruko bideetan egindako arau-hausteengatik:

- **Harana (2025/03/31)**
- **Arrieta (2025/07/29)**
- **Gatika (2025/12/19)**

## 4.6 ASUNCIÓN DE COMPETENCIAS SANCIONADORAS

Asunción de competencias sancionadoras en materia de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial por las infracciones cometidas en las vías urbanas de los municipios de:

- **Valle de Arana (31/03/2025)**
- **Arrieta (29/07/2025)**
- **Gatika (19/12/2025)**





TRAFIKOA - TRÁFICO

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO